

UNITATE DIDÁKTIKOA: Haur-hezkuntza+Lehen hezkuntzako 1. Zikloa

Zer da bakea?

Helburua*

1. **Bakeari buruz** hausnartzea, eta bakeak gerrarik ezak baino esanahi zabalagoa duela adieraztea.

Dinamika*

1. Ideia-jasa

Irakasleak erabaki behar du ariketa hau egiteko ikasleak taldetan bildu nahi dituen edo denak elkarrekin lan egitea nahiago duen.

- **Ikasleei bakea** defini dezaten eskatu behar zaie (bakea gerrarik eza baino askoz gehiago dela azpimarratu behar da; hurbileko egoera batean oinarrituta, pentsa dezatela bakea zer den: anai-arrebekin ez borrokatzea, lagunekin ez haserretzea...).
- Ikasleek emandako ideiak arbelean idatzi behar dira, denak elkarrekin ari badira lanean; taldetan ari badira, ordea, ikasleek berek idatzi behar dituzte (Lehen Hezkuntzakoek). Taldetan ari badira, bukaeran bateratu behar dira ideia guztiak.
- Orri-tamainako paper edo kartoi mehe batean idatzi ideia bakoitza.

2. **BAKEAREN** ikurra marraztea

Ikasleek nahi duten bakearen ikurra marraztu behar dute orri-tamainako paper edo kartoi mehe batean.

3. **BAKEA** hitza osatzea

Zer da bakea? galderaren erantzunak dituzten orriak eta bakearen ikurra marraztuta dutenak txandaka baliatuta, **BAKEA** hitza osatu behar dute ikasleek.

4. **Ekintza sinbolikoaren prestakuntza**

Bukatzeko ikasleei bakearen kontrako hitzak asmatzera konbidatuko zaie. Ideiak bildu ondoren paperetean idatzi edo marraztu beharko dituzte. Paper hauek **DENIP** egunean eraikiko den harresian erabiliko diren zuku edo esne-kaxa hutsak estaltzeko erabiliko dira.

Ikasgelan lanean jarraitzeko:

Mundu zuzenagoa eta baketsuagoa eraikitzeko ahalegina ezin daiteke egun bakar batera mugatu. Hori dela eta, Intermon Oxfam-etik proposamen didaktiko batzuk egin nahi dizkizuegu ildo horretan lanean jarraitzeko:

- **Bakea eraiki dezagun** monografikoa (4 orduko unitate didaktikoa). Bakeari, indarkeriari edo gatazkari buruzko hausnarketa proposatzen du. Gatazken aurreko jarrerak ebaluatzea du asmoa, arazoei irteera kooperatiboa eskaintzeko.

Material hori web-etik deskargatu dezakezu (www.IntermonOxfam.org/educar/monograficos) edo **902 330 331** telefonoaren bidez eros dezakezu.

- **Armak kontrolpean** maleta pedagogikoa. Ikasleentzako eta irakasleentzako hainbat materialek eta baliabidek osatzen dute proposamen globalizatu hau. Proposamenak helburu hauek ditu: armek gizartean duten eragina ezagutzea, indarkeriaren kultura indargabetuko duten balioak eta jarrerak sustatzea eta gatazkak modu baketsuan konpontzeko beste bide batzuk aurkitzea.

Hemen aipatzen diren materialek osatzen dute maleta; material horiek guztiak batera edo bakarka eskuratu daitezke **902 330 332** telefono-zenbakira deituta:

- **Dossier informatzaile bat:** "Vidas destrazadas".
- **DVD bat:** Kontroletik kanpo
- **4 lan-koaderno:**
 - Haurren zikloa: "Memed-en oparia"
 - Lehen zikloa: "Ezuste bisita"
 - Bigarren zikloa: "Koloretako tximeletak"
 - Hirugarren zikloa: "Bakearen aldeko oihua"
 - 2 gidaliburu didaktiko: haurren zikloa eta 1. zikloa; eta 2. eta 3. zikloak
 - 1 ginkana: "Huamborako bidean"